

# 80

## HITZAURRE GISA

Maria-Jose Azurmendi

*Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna*

Helbide elektronikoa: [ehu-azurmendi@telefonica.net](mailto:ehu-azurmendi@telefonica.net)

Oraingo hau zenbaki berezia dugu. Erramun Baxok euskaltzaleak aurten 80 urte betetzen dituela ospatuz, bere ibilbide luze eta aberatsa gogoratu nahi izan dugu, haren omenez idatziriko zenbaki honen bitartez. Hemen bildu ditugu, beraz, hainbat motatako lanak: I. atalean, E. Baxoken biografia, bere euskaltzale eta eragile bilakaera azpimarratuz; II. atalean, E. Baxoki zuzentzen zaizkion aitortzak, berekin harreman zuzena izandako hainbat laguneren esperientziak bilduz; III. atalean, E. Baxoki eskainitako artikulua. Horieta-ko batzuk euskal lurralde bakoitzaren egoera soziolinguistikoaren deskribapenak dira —Iparraldekoak, Hegoaldeko EAEkoak, Hegoaldeko Nafarroakoak—; besteak teorizaziora jo dute, bereziki azken artikulua, berrikuntzak aurkeztuz; artikulua batzuk sinkronikoak dira, besteak diakronikoak. Lan guztiak dira interesgarriak, eta baita elkarren osagarriak ere, izan ere, ebaluaketak egiten dituzte —alde onak eta txarrak, indar guneak eta ahuleziak bereiziz—, gure arteko eztabaidarako gaiak eskaintzen dituzte eta etorkizuneko proposamenak egiten. Denen arteko halako lotura bat ere badago, jakina, lan horiek E. Baxoken biografia berari lotzen zaizkiolako.

Ez gara arituko orain E. Baxoken biografari iruzkina egiten. Iparraldeko euskalduntasunaren azken hamarkadetakoa bilakaerari bere bizitzaren historia nola lotzen zaion ikusteko hor ditugu hainbat datu: kasu batzuetan euskararen erakundetzea bultzatuz, eta, besteetan, erakunde bitartez euskararen aldeko plangintzetan, ekintzetan eta ikerketetan parte hartuz; erakunde publikoetan gehienetan, baina baita erakunde sozialetan ere, beti modu aberatsean euskararen alde lanean aurkituko dugu Baxok. Guztiagatik, gure zorionak eta esker onak zuri, Erramun! Aurrerantzean ere, horrela, luzaro jarraitzea espero dugu!

Ez gara arituko ezta ere E. Baxoki egiten zaizkion aitortza-gutunaren inguruko aipamenak egiten. E. Baxok eta bere biografia hobeto ulertzeko denak dira lagungarriak, berekin izandako esperientziek eragina idatzi baitira, denak goxoak egia esan. Horiek, alabaina, aipa daitezkeen guztien etsenplu gisa bakarrik har daitezke, izan ere, ez dute osatzen Baxokek euskalgintzan sortu eta elikatu duen sare sozialaren eragin zabal eta aberatsa.

Beraz, E. Baxoki eskainitako lanak iruzkinduko ditugu hitzaurre honetan.

III. ataleko lehen hiru artikulua Iparraldeari buruzko lanak dira, hirurak bertako euskararen egoera sinkronikoa eta diakronikoa ezagutzeko esanguratsuak:

Lehen artikuluan Euskararen Erakunde Publikoaren (EPPa) 2004ko sorrera aipatzen da “Estatua, lurralde aginteak eta Ipar Euskal Herriko hautetsiak biltzen dituen Interes Publiko Elkargo” moduan, “euskararen aldeko hizkuntza politika baten definitzeko eta plantan jartzeko”. Ondorengo urteetako bilakaeraren inguruko datuak ere eskaintzen dira, esate baterako, eredu elebiduna bultzatuz “euskararen eta euskarazko irakaskuntza” plangintza egiteko 2006. urtean hizkuntza-politikaren proiektua onartzea, eta abian jartzea “Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun” lemarekin. EPPak horrelako epe motzean lehen eta bigarren mailako irakaskuntzan egin duen lana goraiatzeko da, izan ere, gurazoztat aukerakoa izanik ere, eskola mota guztietan ikasgelak ireki eta irakasleak kontratatu ditu. Aipagarriak dira, halaber, urte gutxi horietan ebaluaketa batera iristeko eta etorkizunari begira jarraibideak aztertzeko egindako inkesta eta ikerketak.

Bigarren artikuluan, E. Baxok berak dakar azken hamarkadetako euskalgintzaren bilakera, neurri batean bere biografiari lotuta. Bilakera horren epe berezi bakoitzean ekintza esanguratsuenak aukeratu ditu, eta, batez ere, 1990 hamarkadaz geroztik izandako ibilbidea azpimarratu, erakundetze publikoaren bitartez gertatu dena, hain zuzen. Interesgarria da euskalgintzaren erakundetze horren historia erakunde publiko desberdinen artekoa delako, baita Iparraldeko eta Hegoaldeko hainbat erakunde publikoren artekoa ere. Horien artean, EPPa eta EAeko Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren artean 2007. urteko hitzarmenari garrantzi berezia eman dio honako ebaluaketa eginez: “Zortzi hilabete laburregi da bilan bat egiteko. Halere erran dezakegu hitzarmen lankidetzarako tresna bikaina dela... Mugaz gaindiko bi erakunde publikok (Errepublikaren ordezkaria barne!)

euskararen aldeko hizkuntza-politika indartsu bat daramate, behar diren baliabideak baliatuz. Oraino ez da aski, baina inoiz baino gehiago. Alta, oraindik zerbait falta da. “I have a dream”. Noizko hitzarmen hirukoitza, Nafarroa barne? Hau da gure amets ederra”. Azkeneko gogoeta orokorrean aipatzen du “etengabeko eztabaida hor dago legalisten eta boluntaristen artean... Hor daude botere publikoaren eta militantzia elkartearen arteko eztabaidak... Beldur naiz etengabeko soka-tira honetan behar genituzkeen energiak eta baliabideak neutralizatzen ditugula, euskararen kaltetan”. Hona hemen gureko eztabaidarako gai garrantzitsu bat!

Hurrengo artikuluan *Hizkuntza-politika Espur Euskal Herrian* gaiarekiko ikuspegi orokorra ematen du Jean-Baptiste Battistu Coyos-ek, zenbait alderdi lotuz: deskribapena eta ebaluaketa, teorizazioa eta azterketa empirikoa, bertako eta kanpoko egoeren arteko konparazioa, emaitzak eta horien azalpenak, ziurtasunak eta zalantzak, mugak eta ahuleziak, eztabaidak, galderak, hausnarketak, eta abar. Hori guztia hainbat aplikazio-eremuren azterketaren bitartez; lan aberatsa berrituz. Aipagarria da, aldi berean, artikulua zati desberdinen hasieran E. Baxokek esandakoen aipuak inspirazio moduan edo erabiliz, hari egiten dion omenaldi-modua. Teorizazioan murgiltzen da zenbait teoria edo eredu uztartuz: Berryren *akulturazioa*, Txepetxen *hizkuntza-ikaskuntza* osoa —berrikuntza erantsiz—, Fishmanen *hizkuntza-aldaketaren alderantzikatzeta*, Giles eta besteen *bizindar etnolinguistikoa*, eta beste batzuk, modu horretan emaitzak eta egoerak hobeto azaldu nahian —gaur egungo ikuspegi soziolinguistikoa eta psikosoziolinguistikoa nahiko ohikoa den joerari jarraituz, bestalde—. Orokorrean, ikuspegi nahiko kritikoa erakusten duela iruditzen zait, baliagarria dena, ordea, berrikuntza bultzatzeko.

III. ataleko ondorengo artikulua Hegoaldeari buruzko lanak dira, EAeko eta Nafarroako egoerak aztertuz:

Pablo Sagardoyk EAeko familia bidezko euskararen transmisioa aztertzen du, “guraso

biekin bizi diren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabek gurasoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruzko azterketa eginez". Zuzenki, seme-alaben lehen hizkuntzaren banaketa aztertu du gurasoen zenbait ezaugarriren arabera elkartuz. "Datuak 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan jasotako informaziotik atera dira" honako alderdiak kontuan hartuz: lurraldea, udala, adina, sexua, gurasoen adina, gurasoen hizkuntza-gaitasuna —zazpi kategoria edo tipo, eta bikotekide bakoitza bereziz—, eta alderdi horiek elkar gurutzatuz. Emaitza orokorrak eskaintzen dira: gurasoen "adinean behera egin ahala lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentaia handitu egiten da"; "hazkunde ikusgarrienak euskaraz egiten duen bikotekidea edo bikotekideak euskaldun berriak direnean izaten da", edo "gurasoetako batek ere ez duenean euskaraz ondo hitz egiten, balio handienek adin-talde gazteenean bakarrik gaintitzen dute %10" nahiz eta horrek hazkunde-erritmo handia dakarren. Familia bidezko euskararen lehen transmisioa ezagutzea oso garrantzitsua da, izan ere, soziolinguistika arloko adituen artean —bertako zein kanpokoen artean— adostasun maila nahikoa dago gai honen inguruan, hau da, hizkuntza-gutxiengo, gutxiagotu edo menderatu baten errekupeazioa, normalizazioa eta iraupen-itxaropena neurtzeko adierazle nagusienetakoa familia bidezko hizkuntza-transmisioa dela esaterako orduan.

Hurrengo artikulua ere EAEari buruzkoa da. Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen gaiaren inguruan mintzatuz, EAEko Kontsumitzaileen Eskubideen Dekretuaren zenbait eremu aztertu dira. Aztergaia nahiko berria da gure artean, baina ez bigarren mailakoa delako. Aldiz, oso baliagarria da euskararen errekupeazioa, normalizazioa eta naturaltasuna neurtzeko, esate baterako, hizkuntzaren presentzia —euskararena, gure kasuan— pribatua eta publikoa, eta behar pertsonalak eta sozialak lotzen dituelako. Era berean, elkarrekintza ofiziala eta soziala uztartzen ditu; presentzia normala —onartua eta naturala—, ala arraroa —ez-onartua, arrotza eta klandestinoa,

neurriren batean— den adierazten du, gure men-debaldeko gizarte garatua aspaldidanik kontsumitzaileen eskubideak eztabaidatik kanpo gelditu diren garaian hain zuzen. Horrela bada, interesgarriak dira artikuluan esaten direnak, batez ere erakusten duen ikuspegi kritikoa, hutsune eta ezintasun larriak esanguratsuak direlako, are gehiago euskararen eta espainieraren egoerak konparatiboki aztertzen direnean.

Nafarroari buruzko artikulua dator ondoren. NUPko eta Ikastolen Elkarteko adituek egindako Nafarroa Oinez 2007ko jai egunaren azterketa ekartzen da, erakundeen arteko elkarlana dena, gure zorionerako. Ikerketan, jai horretan parte hartu dutenen profila aztertu da, zenbait alderdi kontuan hartuz: sexua, adina, ikasketa-maila, jatorria, euskaraz jakitea, adiskide arteko edo familiarterako parte-hartzea, motibazioa, balorazioa eta hurrengo deialdira joateko asmoa. Emaitza modura lortzen den argazkia positiboa dela dirudi, gehienbat aukerako aldagaiak kontuan hartzen baditugu, aukerakoak direlako hain zuzen ere. Adibidez, parte-hartzea nahiko kolektiboa da, adiskide artekoa edo familiarterakoa, nahiz eta, gaur egun, indibidualizazio joera nagusitzen ari den gure artean ere. Motibazioaren aldagaia kontuan hartuz, garrantziaren hurrenkera honakoa da: *euskarari laguntzea, ikastolei laguntzea, aisia, eta dibertitzea*, modu horretan euskara eta ikastolak dibertsioarekin lotzen direlarik —lotura esanguratsua iraupena bultzatzeko—. Azkenik, gehiengoak egunean zehar izan duen parte-hartze luzeari buruzko datuak eskaintzen dira, eta baita hurrengo deialdian gehiengo handiaren parte-hartzeko asmoa edo fideltasun-neurriari buruzkoak ere.

III. ataleko ondorengo bi lanak bereziak dira, bien helburu nagusia teorizazioan sakontzea delako, nahiz eta horretarako azterketa enpirikoak erabiltzen dituzten.

Hurrengo artikulua Identitate Etnolinguistikoaren (IEL) teoriaren garrantzia azpimarratu nahi du, EAEko ikasle unibertsitarioekin eginiko azterketa enpiriko baten bitartez. Artikuluak erakutsi nahi du, gurea bezalako hizkuntza —eta

hizkuntza komunitate— gutxiengo eta gutxiagotu —edo hobeto menderatu— direnen kasuetan, IELA ezinbesteko prozesua dela, izan ere, bestelako prozesu eta portaerak ulertzeko ere ezinbestekoa baita. Hori dela-eta, erabili diren ia teoria eta eredu soziolinguistiko eta psikosoziolinguistiko guztietan —gurean eta kanpokoetan—, IELak erdigunea hartzen du. Eta ikusi dugunez, horrela da aurreko artikuluetan, eta, baita, ondoren datoren azken artikuluan ere. Horrela da, baita ere, gurean egindako zenbait azterketa eta ikerketa enpirikotan ere.

Hori ulertzeko, zenbait alderdi kontuan hartu behar dira. Adibidez, egoera gutxiagotu eta menderatuetan, identitate-atxikimendua arrazoi nagusia da egokiera-maila desberdinen aurrean erantzuteko: egoera-maila okerreko kasuetan, eusteko; egoera-maila kaskarrekoetan, mantentzeko eta irauteko; egoera-maila hobeagoko kasuetan, erre-kuperazioari eta ber-normalizazioari ekiteko, eta egoera-maila nahiko oneko kasuetan naturaltasunez bizitzeko eta geroa ziurtatzen laguntzeko. Bestalde, ukipen-egoeran dauden hizkuntza eta hizkuntza-komunitateetan, bai menderatzailearen baitan, eta baita —horregatik, agian— menderatutakoarenean ere, identitatea da —IELa gure kasuan— beren arteko harremanak azaltzen dituen prozesu nagusienetakoa —nagusiena ere bai, agian—. Hala erakusten du “asimetria”ren arabera teorizazioak, boterea, estatusa, tamaina, justizia, ... erlatiboak erabiliz. Gainera, bi hizkuntza-komunitateren arteko asimetriaren neurriaren arabera, menderatzailearen IELaren intentsitatea aldatu egiten da era honetan: asimetria handiagoa denean, IELA txikiagoa da, baina, alderantziz, asimetria txikiagoa denean, IELA handiagoa eta indartsuagoa da, halako erresistentzia-joe-ra erakutsiz; menderatukoetan, aldiz, beti behar du IEL indartsua izan.

IELaren eraikuntza konplexua da, honako arrazoiak tarteko: 1) Alderdi psikosozial guztiak biltzen dituelako —prozesu-mota kognitiboak, afektiboak, motibaziozkoak—, eta prozesuen eta portaeren arteko lotura egiten duelako. Horrega-

tik, teoria eta eredu gehienetan jasotzen dira bizindar erlatiboa eta akulturazioa moduko kontzeptuak; 2) Ikuspegi soziologikoak —makrosozialak eta mikrosozialak— eta psikosozialak lotzen dituelako sare sozialaren bitartez; 3) Azterketa— eta aplikazio-maila guztiak uztartzen dituelako, eta maila bakoitza definitzen laguntzen duelako —norbanakoa, taldea, komunitatea; 4) Identitatea, alabaina, prozesuzko zerbait da, gaur egun geroz eta aldakorragoa dela ikusten ari garena, hain zuzen. Bestalde, aldakortasuna edozein fenomenoren baitan agertzen da, eta horregatik, hemen ere bilakaerari eta diakroniari garrantzi berezia ematen zaio. Ideia horiek erabili dira azterketa enpiriko honetan, IELaren garrantzia gurean ere frogatzeko, edo —hobeto esan— jadanik genekiena ziurtatzeko, izan ere, identitatea nahiko erabilia izan baita gure artean ere. Emaitzetara joanez, honakoa azpimarra daiteke: (1) IEL teoriaren garrantzia frogatzen da gure arteko egoera soziolinguistikoa eta psikosoziolinguistikoa ulertzeko; (2) gure ukipen-egoera nahiko egoera kaskarra da euskararen inguruan, gatazkatsua, EAEko ikasle unibertsitarioen artean behintzat, (3) gatazka handiagoa da komunitate menderatzailean, komunitate menderatuan baino.

8. Azkeneko artikulua bereziena da, teorikoen delako, teorizazioan berritzaileena eta konplexuena, eta teorizazio ezberdinak uztartuz *Bizindar etnolinguistikoren teoria* berritzen duela. Lan aberatsa oso, eta, aldi berean, zalantza eta galdera gehien sortzen dituena, baita, gure artean ere. *Hizkuntza-gutxiengoen talde-bizindarra, kultura-autonomia eta ongizatea* izenburu berak aurreratzen du eredu teoriko orokor eta osatua proposatu nahi dela, eta edozein hizkuntza-gutxiengo aztertzeko eta bertan aplikatzeko teoria baliagarria izateko asmoa duela. Bizindar etnolinguistikoren teoriaren hiru bertsio erabiliko dira horretarako: *talde-gutxiengoaren bizindarra, kultura-autonomia eta ongizatea* —erlatiboak edo konparatiboak beti—, batez ere, Kanadako eta Quebecoko esperientzietan oinarrituz. Hiru zatitan banatzen da lana:

Lehen zatian *hizkuntzaren eta hizkuntza-taldeen (komunitatearen, ...)* bizindar erlatiboaren teoria aurkezten da, bai objektiboa eta baita subjektiboa ere —hautemateak, usteak, itxaropenak—. Aurkezpenean ohiko hiru dimentsioak bereizten dira: 1) demografia, 2) kontrol eta babes instituzionala, eta 3) estatua. Hiru dimentsioak oso modu konplexuan ulertu behar direnez, beren arteko loturak eta elkarreraginak azaltzen dira artikuluan.

Bigarren zatian, *kultura-autonomiaren teoria* aurkezten da, aurrekoaren zenbait alderdi teoriko aukeratuz, lotuz eta integratuz. Honako dimentsio konplexuak bereizten dira: 1) hurbiltasun sozialak sortzen duen *komunitatea, soliraditate-hizkuntza* kontzeptua garatzeko beharrezkoa dena. Horrela, *estatua duen hizkuntza* kontzeptua komunitate menderatzaileen kasuetarako gordetzen da: bizindarraren teoriaren demografia-dimentsioa eta hizkuntza-ordezkapen alderantzizkatze ereduaren etxe-familia-auzo-komunitate maila; 2) *gizarte zibila*, kontrol instituzionala izango duena. Gutxiengo-komunitateak maila desberdineko babes instituzionala izan dezake, gehiengoak hala nahi izanez gero, eta, ondorioz, neurri batean *estatua duen hizkuntza* erara eremu publikoan ere erabili ahal izango da gutxiengo-hizkuntza; 3) *estatua eta herritartasuna*, gutxiengo-komunitateari legitimitate ideologikoa emango diona, berriro ere gehiengoak nahi duenean eta erabakitzen duen mailan. Honako lau ideologia-tipo bereizten dira ondorioz: *anitza* —gutxiengo-komunitatea mantentzen lagunduko duena—, *zibikoa* —gutxiengo-komunitatea bere baitan inongo laguntzarik gabe utziko duena—, *asimilatzailea* —gutxiengo-komunitateari bere berezitasunak, hizkuntza barne, galaraziz, gehiengoarenak errazago hartzeko—, ohikoa mendebaldeko estatu garatuetan, eta *etnizista* —gutxiengo-komunitatea desagerraraziz, batzuetan genozidioa ere erabiliz—. Dimentsio horien arteko lotura ezinbestekoa da, eta beren arteko elkarreraginak ondo ulertu behar dira, 4) *identitate kolektiboa* kontzeptua erabiltzen da, gutxiengo-komunitatearentzat ezinbestekoa delako, komunitate menderatzailearengandik ahalik eta egoera onena lortu ahal izateko.

Hirugarren zatian, *hizkuntza-gutxiengoaren ongizate eredia* aurkezten da —edo posibilitateak—, kasu horretan ere, aurreko zenbait teorizazio uztartuz: 1) talde-bizindar erlatiboa, 2) hizkuntza-gehiengoarekin duen harreman-mota, horiek —edo estatuek, hobeto esan— erabiltzen dituzten hizkuntza-legeen eta legitimitate-ideologiaren arabera, 3) ukipenezko-komunitate bakoitzaren mobilizazio-maila kultura-autonomiaren inguruan. Hiru alderdi horiek uztartuz, hainbat aukera soziolinguistikoko irekitzen dira gutxiengo-hizkuntzarentzat. Hala ere, artikulugileek, aukera horiek irudi baten bitartez laburtzerakoan, lau aukera ematen dituzte bizindar teoriaren bi dimentsio bakarrik gurutzatuz: demografia —altua/baxua— alde batetik, eta babes instituzionala —altua/baxua— bestetik. Horrela, bi dimentsio horiek nagusi moduan agertzen dira, honako lau ongizate-tipo edo egoera —koadranteak, irudian— bereiziz: (1) ongizate osoa lortzeko *susperaldi-egoera*, (2) eta (4) egoera egonkor baina *gai-xotasun problematikoa* adierazten dutenak, (3) *gai-xotasun larriko-egoera* kritikoa. Aipatzekoa da euskal kasua Espainian (2).ean sartzen dutela, eta euskal kasua Frantzia (3).ean.

Laburpen modura esan daiteke, hori guztia *bizindar erlatiboaren teoriaren* baitan soilik uler daitekeela, teoria horren bilakaera modura, gutxiengo-komunitatearen kultura— edo hizkuntza-autonomia eta ongizate posibilitateak azaltzeko. Bilakaeraren azken bertsioraino joanez, helburua ongizatea lortzea da, beti ere, **gutxiengo-hizkuntzei eta hizkuntza-komunitateei** ematen zaizkien aukerak ulertzeko.

Hizkuntza-komunitateen ongizatea lortzeko xedearekin, demografia-dimentsioa eta babes instituzional-dimentsioa nagusiak dira.

*Babes instituzionala* gehiengo-hizkuntza menderatzailearengandik etorriko dela aipatzen da, beti ere. Gehiengo horiek estatuak dira, talde edo komunitatea baino aplikazio maila nagusiagoa dutenak, babes instituzional hori nahi dutenean eta nahi duten neurrian emango dutenak. Aldiz, ez da *kontrol instituzionala* aipatzen —boterearekin

lotzen dena, auto-kontrola eta exo-kontrola eginenez—, bide hori gutxiengo-hizkuntza eta hizkuntza-komunitateari itxiz, betirako, dirudi.

Lau posibilitate ditu gutxiengo-hizkuntza-komunitateak, beti ere demografia eta babes instituzionalaren dimentsioaren arabera: onena, ongizatearen susperraldian egotea, okerrenea gaixotasun larri kritikoa egotea. Tarteko beste biak gaitasun problematiko-egoeran egotea da; horrek zera ondorioztatzen du, besteak beste, kasu onenean betirako susperraldi— edo normalizazio-prozesuan egotera kondenatua dagoela hizkuntza-gutxiengoa.

Garrantzitsuena ordea ez da gehiengo/gutxiengo izatea, demografia-dimentsioak jasotzen duen moduan, baizik eta menderatzailer/menderatu izatea, kontrol instituzional-dimentsioak adierazten duen bezala, —baina ez babes instituzionalak—. Hala erakusten zuen bizindar erlatiboaren teoriaren hasierako bertsioak (1977an) eta hala erakusten dute artikulua 1. eta 2. irudiek ere. Azken bertsioak, aldiz, 4a. eta 4b. irudietan, ez du jasotzen. Horregatik irudi horietako 1. koadrantean —onena den ongizatearen susperraldi-egoera— sartzen dira aldi berean Quebeceko gehiengo frankofonoa eta Espainiako katalana, horrela adieraziz Kanadako gehiengo frankofonoaren egoera babes instituzionalaren arabera hobeto ulertzen dela kontrol instituzionalaren arabera baino.

Harrigarria dirudi, lehen momentuan behintzat, Quebeceko frankofonoak eta Espainiako katalanak egoera-eredu berdinean kokatzea. Quebec, oro har, lurralde frantses elebakarra izatea lortu du orain ia lau hamarkada, eta Kataluniaren egoera oso bestelakoa da. Interpreta al daiteke Quebecen egoera alda daitekeela?, kontrolaren arabera ulertu ordez babesaren arabera ulertu behar dela? Horrela balitz, pentsa genezake Quebecen frankofonoen iraupen lasaia Estatuak soilik ziurtatu dezakeela, kontrol instituzionala erabiliz. Edo bestela esanda, ezinezkoa dela estatua izan gabe hizkuntza eta hizkuntza-komunitate batek etengabeko susperraldi-egoera prozesual batetik ongizate-egoera lasai iraunkor batera joatea.

Edo agian estatu federal moduko egoera lortzea beharrezkoa da, nahikoa akaso, gutxiengo-komunitatea mantentzeko eta garatzeko, artikulugileen hitzetan “elkarlanaren bidezko partaidetza orokorra ziurtatuta dago zenbait gobernu-maila dituen estatu federal batean”. Baina horretara irizteko, estatu federal horrek zenbait baldintza bete behar ditu: 1) hizkuntza-eskubideen errespetua, 2) ekimen kolektiboa abian jartzeko identitate kolektiboa egotea, 3) ekimen hori era estrategikoa antolatuta egotea, eta arretea, bereziki, bizindararen alderdi garrantzitsuetan jartzea, 4) baliteke taldeak komunitate-mobilizazioak antolatu behar izatea, eta partaide garrantzitsu guztien lankidetzat osoa hobetuko duen gobernamendu-egitura asmatu behar izatea, 5) “erronkei aurre egiteko beharrezko dira gizarte zibilaren buruzagitzak, gobernuaren babesak eta zerbitzuak, eta bere beharrak, helburuak eta erronkak ezagutzen dituen komunitate bat izatea”, 6) “... bide egokienak aurkitzea da zeregin horren *zientzia eta artea*”.

Hala ere, artikulua azken konklusio moduan esaten da “azken helburua litzateke[ela] arriskuan dauden hizkuntza-komunitateei ongizate osoa lortzeko susperraldi-egoerara igarotzen laguntzea” —bestela esanda, gutxiengo-komunitateari posible zaion egoera posible onenera pasatzen laguntzea—, edo egoera hoberen horretan mantentzeko, “ongizate osoa lortzeko susperraldi-egoeran” hain zuzen, eta ez besterik.

Azken konklusio moduan esaten da “globalizazio ekonomikoaren garaian, ezinezkoa izango d[el]a hizkuntza-komunitateak arriskuan ez egotea, beren bizindarra edozein dela ere... Hizkuntza eta kultura erabat salbu egotea lortzea ilusio bat d[el]a egun, historian zehar beti izan den moduan”; argiago oraindik, ia ezinezkoa dela, mirarizkoa ez bada, gutxiengo-komunitate egoeratik irtetea. Horrela bada, 1977ko hasieratik gaur arteko berrikuspenak kontuan hartuz, bizindar erlatiboaren teoriak honako ideietara eramaten gaitu: 1) edo euskara berreskuratzea eta ber-normalizatzea ezinezkoa da, estatua lortzen ez den bitartean behintzat, berreskuratze hori, beti ere,

besteek nahi dutenen edo uzten dutenen arabera-koa izango baita, 2) edo berreskuratzea lortzeko bidea estatua izatea da, edo, agian, estatu federal bateko kide izatea.

Bestalde, artikuluan badaude argitu beharreko zenbait gauza inplizitu, nahasi, ilun edo zalantzazko gertatzen direnak. Ez da hau, ordea, horiei guztiei leku egiteko momentua, besteak beste luzeegi joko lukeelako; hala ere, pena merezi du, nire ustez behintzat, hemen esandakoari buruz gure arteko eztabaida egitea. Eztabaida hori bul-tzatzeko, agian komenigarria da artikuluan erabiltzen den terminologiaren argitze modukoa egitea. Hizkuntza-ukipen egoeretan, gutxienez bi hizkuntzen egoerak eta beren artekoa aztertzen direnez, ondo bereizi behar dira, harreman asimetrikoak dituzten hizkuntzak izendatzeko terminoak. Adibidez:

Artikuluan nagusiki *hizkuntza-gehiengoa/gutxiengoa* terminoak erabiltzen dira, baina batzuetan *hizkuntza-menderatzaile/menderatua*, modu nahasian. Termino horiek esanahi ezberdinak dituzte eta modu argian erabili behar dira: asimetriaren goimailan dagoen hizkuntza eta hizkuntza-komunitatea egokien definitzen duen terminoa *menderatzaile* terminoa da —nahiz eta sarri *gehiengoa* edo *estatus altuenekoa* ere izan—, eta asimetrian behe-mailan dagoenari *menderatu* terminoa —nahiz eta askotan *gutxiengoa* edo *estatus baxuenekoa* ere izan—, besteak beste: *menderatzaile* izateak kontrola izatea dakarrelako —aukeratzeko, erabakitzeko, inposatzeko, saritzeko eta zigortzeko ahalmena izatea—, eta, bide batez, derrigorrezko harremanak ezartzen dituelako.

Antzeko zerbait gertatzen da bizindar teoriaren *kontrol* eta *babes instituzional* dimentsioekin; *kontrola*, soilik, *menderatzaile*-egoerako dimentsio bezala ulertzen da —autokontrola eta bestearekiko kontrola ere bai—. *Menderatu*-egoeran, aldiz, besteak ematen duten *babesa* lortu daiteke bakarrik, ez ordea autokontrola. Ikuspegi horretatik *babesa* sari moduko zerbait da, *menderatzaileak*, *menderatutakoarekin* nahiko ondo dagoenean, eman dezakeen zerbait da, aldakorra da. Horrega-

tik, *hizkuntza-gutxiengoaren ongizate eremuan*, *babes instituzionala* aipatzen da *kontrol instituzionalaren* ordez, *menderatua* eta *gutxiagotua* den hizkuntzari —eta hizkuntza-komunitateari— betirako leku horretan kokatuz, nahiz eta horretan neurri desberdinak lortu ditzakeen, ematen zaion neurrian, noski.

Aztertze-eta aplikazio-maila artean ere bada-go zer argitua, izan ere *taldea* askotan, eta *komunitatea* batzuetan, *menderatu* den hizkuntza eta hizkuntza-komunitatea izendatzeko erabiltzen baita, baina *menderatzailearentzat* gehienetan *hizkuntza-menderatzailea* edo *gehiengo-hizkuntza menderatzailea* erabiltzen da, baina ez *estatu menderatzailea*, behar lukeen moduan; gure ustez, oro har, harreman asimetrikoak maila desberdinen artekoak dira, *menderatzaile*— eta *menderatu*-egoerak posible egiteko, eta ez demografia-neurri edo tamaina desberdinen artean geratzen direnen artekoak.

Orokorrean, azken artikulua euskararako eta euskal komunitaterako nahiko egoera ezkorra adierazten digula esan dezakegu, bizindar teoriaren arabera behintzat. Bestalde, aurreko artikuluetan euskararen inguruko gaietan esaten direnak ere kontuan hartuz, nahiko argilun atzematen direla ere ikusi dugu. Hala ere, posible ote dugu ikuspegi baikor bat eraikitzea?, euskararen normaltasun iraunkorra lortzeko irtenbide baikor egokia asmatzea? baietz espero dezagun, aldeko garen denon artean behintzat. ■